

2022
URTEKARIA




ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO TRIKITXA ELKARTEA

2022

URTEKARIA



altzaporrurru

EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Harpidedunentzat doako alea

Erredakzioa

Irune Elizagoien

Koordinazioa eta ekoizpena:

Andoitz Antzizar

Diseinua eta maketazioa:

Antza S.A.L.

Inprimaketa:

Antza S.A.L.

Lege gordailua:

D 01362-2020

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte
Enparan kalea 18
20730 Azpeitia
Gipuzkoa
Tel.: 943832828

Emaila:

trikitixa@trikitixa.eus

Webgunea:

www.trikitixa.eus



NEGUA

- 5 Albisteak
- 7 Galbahea
- 7 Atzera begira

UDABERRIA

- 9 Albisteak
- 12 Argitalpen berriak
- 12 Galbahea
- 13 Atzera begira

UDA

- 15 Albisteak
- 16 Artikulua
- 18 Galbahea
- 18 Hamaika ikusteko!

UDAZKENA

- 20 Albisteak
- 24 Argitalpen berriak
- 25 Erreportajea
- 26 Galbahea

Altzaporrul buletina izatetik urtekari izatera igarota, hirugarren urteak ihes egin digu, eta hain zuzen ere hirugarren alea duzu esku artean. Azken bi urteak zinez bereziak izan dira guztiontzat; aldrebesak eta zailak askorentzat. Joan den urte hau ere ez da erabat osoa izan zenbaitentzat. Baina 2022 honetan berriz ere ekin diogu pozaren mezulari den trikitiaren plazak betetzeari, eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak ere pausu sendoz aurrera egiten jakin du zailtasunen artean.

Mantso bada ere, badatoz aldaketak EHTEren baitan. 2021ean logo berria eta webgune berria estreinatzearekin batera, 2022 honetan egoitza berrian kokatu gara eta Azpeitiko Udalaren ezinbesteko laguntzarekin bulegoa martxan daukagu baliabide guztiekin. Elkartearen beraren sortzetik amestu izan den “interpretazio gunea” osatzeko ere gune paregabea gaude, eta azken pausuak ematen ari gara trikitiaren historia kontatuko digun ganbara estreinatzeko.

Trikitiaren familia anitzak ere bere ekarpenak egin ditu azken urte honetan. Euskal kulturaren adierazpen esanguratsuenetakoa garela erakusten jarraitu dugu, eta horren adierazgarri urtekari honetan beteta aurkituko dituzun orrialdeak: diskogintza berria izan da aurten ere, plazak berreskuratu ditugu, erromeri taldeak jo eta ke aritu dira urte osoan festak alaitzen, erromeri guneak dantzariz beteta ikusteak ere poza eragiten digu, oholtza nagusietan trikitia indartsu agertu da.

Orriak pasa ahala, 2022an gure komunitateak egin dituen hainbat ekarpen bata bestearen atzetik ikusiko dituzu. Ez dira guztiak izango, baina dauden guztiekin gure dimentsioaren eta lanaren garrantziaz ohartuko zara.

Jarrai dezagun beraz Euskal Herrian bizitzeko gure modua indartzen eta zabaltzen, jarrai dezagun guretik bazterrak alaitzen, “borroka irabazteko desesperantzari”.

Altzaporrul!

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak

NEGUA



Bilboko Txistulari Bandak Kepa Junkerari omenaldia

📍 Bilbo

🕒 Urtarrilak 17

Bilboko Udal Txistulari Bandak Kepa Junkera omen-
du du bere aurtengo lehenengo kontzertuan, urta-
rrilaren 17an. Emanaldia Euskalduna Jauregian izan
da eta bertan, Garikoitz Mendizabalek zuzendutako
taldeak, Gorka Eskaurizaren (baxu elektrikoa) eta
Aitor Furundarenaren (eskusoinua eta ahotsa) la-
guntza izan du. Junkeraren hainbat pieza interpre-
tatu dituzte Lurra Terra izeneko ikuskizunean.



Kepa Junkera

Nafarroako Trikiti jaialdia, laugarrenez Lesakan

📍 Lesaka

🕒 Urtarrilak 29

Negu betean, trikiti eta pandero hotsek goxatu dute Lesakako Harriondoa Kultur Etxera gerturatu direnen arratsaldea. Amaia Eneterreagak gidatutako jaialdian, parte-hartzaileak Oihan Arizala eta Goiari taldea; Xabi Arakama, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga; Ruben Isasi, Xabier Valle eta Argibel Euba; Maider Martineau, Arnaud Bibonne eta Jokin Irungaray; Leire, Amaia eta Gari; eta Aritz Alustiza, Leire Etxezarreta eta Maitane Arteaga izan dira.



Argazkiak: Ibon Errazu

Nafarroako trikiti jaialdiko parte-hartzaileak

Tomas Soraluze *Epelde* omendu dute San Jose Trikiti Jaialdian

📍 Azpeitia

🕒 Martxoak 12

Jaialdiaren antolatzaileek Epelde soinu-jole azkoitiarraren izena goraipatu dute, trikitiaren munduan ibilbide oparoa egin eta transmisio lanean ere eragin duelako. Martirietako trikitilariarekin loturaren bat izan duten musikariak igo dira aurten oholtzara; hala nola, Martittarrak eta Jauregi; Elustondo anai-arrebak; Izer eta Alabier; Monttetarrak; Epelde anaiak; Itzeder eta Txibilter; eta Zabale, Berastegi eta Lutxurdio. Soreasu antzokia beteta, omenaldi hunkigarria jaso du Tomasek.

San Jose Trikiti jaialdiko parte-hartzaileak. Epelde



Argazkiak: Ibon Errazu



JUAN EZENARRO

Euskal Herriko txoko gehienetan jotzeko aukera izan zuen Berastegik, Laja, Elgeta, Epelde, Zabaleta, Maltzeta, Tapia, Jauregi eta beste hainbat ondoan zituela...

Festa zegoen leku denetara joaten ginen, ondo pasatzen genuen. Panderoak jende eta bazter pila bat ezagutzeko aukera eman zidan. Urte asko izan dira, eta atzera begiratzen dudanean, egin dudan guztiaz harro sentitzen naizela esan dezaket.

Uztartia 2021/12/27

INES OSINAGA

Nor da Maurizia?

Maurizia señora zoragarri bat da, plazandreon ama eta amama. Sinbolo gisa aldarrikatzen dugu, ia ikono pop gisa, hashtag eta guzti. Bada izateko modu bat. Galdetzen omen zioten: "Zergatik esaten duzu etengabe 'Aupa Maurizia!' kopletan?". Eta hark erantzun: "Beitu, nik bi gizon dauzkat ondoan. Batek alboka jotzen du eta ahoa okupatua dauka; besteak soinua jotzen du baina hitz-totela da. Ez badut esaten, nork aupa-tuko nau ni?". "Aupa Maurizia!" aldarri feminista da.

Argia.eus 2022/03/07



Epelde

TOMAS SORALUZE EPELDE

Zer eman dizu trikitiak urte hauetan guztietan?

Lehen, trikitia jotzera joan eta kobratu egiten genuen. Hori ederra zen, bestela ez dago-eta jotzen aritzerik. Ni Landetan aritu nintzen lanean, Marcial Ucinen, baina 32 urtetik 46 urtera bitartean soinuarekin bakarrik ibili nintzen; makina bat leku pasatu nituen orduan. Soinuarekin bakarrik gaur egun ez dago bizitzerik, ordea; garai hartan apur bat errazagoa zen, neguan ere erromeriak egiten baitziren hainbat txokotan, eta orain, ez. Aristerrazu bakarrik gelditzen da.

Uztartia.eus 2022/03/11



ATZERA BEGIRA!

atzera begira

Duela 100 urte, otsailaren 2an jaio zen Felisa Arribalzaga pandero-jolea. Felisa Arribalzaga (Muxika) eta Eduardo Egiarte (Zornotza) trikitilariak Bizkargin elkar ezagutu zuten gaztetan, artzain ibiltzen ziren garaietan. Aurrerago erromeria ederrak girotu zituzten Santa Krutz egunez Bizkargin bertan, eta baita beste hainbat lekutan ere. Bikote artistikoa osatzeaz gain, senar emazteak ziren Felisa eta Eduardo.

Eduardo Egiarte, Felisa Arribalzaga, Juanita Gorroño eta Basilio Undagoitia "Basilio Txiki" elkarrekin ibiltzen ziren. Eduardo eta Felisarekin ibili ziren baita Kristobal Txarterina "Kristo" eta Leon Bilbao albokariak ere.

2015eko ekainaren 30ean hil zen Felisa Arribalzaga pandero-jole, irrintzilari eta dantzaria, 93 urterekin.



Felisa Arribalzaga






800dik gora soinu eta pandero Euskal Herriko Trikitixa Egunean

📍 Pasaia
🕒 Martxoak 26

Pasaia kaleak soinu eta pandero hotsez jantzi dira goizetik iluntzera. Trintxerpeko Illumbere Musika Elkartek 50 urte bete dituen urtean, ospakizunarekin bat egin dute Euskal Herri guztiko ia mila soinu-jole eta pandero-jolek. Pasaia kaleak lau barrutietan banatuta, kalejirak egin dira eta Triki Blinders, Iratzar, Korrontzi, eta Trikidantz taldeen kontzertuak ikusteko aukera izan da eguerdian. Arratsaldean, musikari guztiek martxa bateratuan kalejira egin dute. Aurreikuspen guztiak gaituta, jendearen kalean jotzeko gogoia bistakoa izan da.



Euskal Herriko Trikitixa Eguna



Markinako III. Trikitixa txapelketa

Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar bigarren txapeldun Markinako helduen trikitixa txapelketan

📍 Markina
🕒 Maiatzak 14

Baserri Egunaren ospakizunen barruan jokatu da Helduen III. Trikitixa Txapelketa. Guztira, bost bikotek parte hartu dute eta Xabi Etxaniz eta Ainara Saizar izan dira txapeldunak 758,5 puntu eta 1000€ eskuratuta. Haiengandik 49 puntura geratu dira Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta, 709,5 puntu eta 700 euroekin. Hirugarren sailkatuak Leire Zumeta eta Amaia Arza izan dira, 673,5 puntu eta 600 € lortuta. Laugarrenak, Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña 648 puntu eta 300 €ko sariarekin eta bosgarrenak Laja II. eta Lutxurdio 250 €ko eskupekoarekin. Soinu-jole azkoitiarrak eta pandero-jole aiarrak bigarren txapeldunak izan dira Markina-Xemeingo lehiaketako txapela, txapelketa honen lehen edizioan ere haiek izan baitziren txapeldunak.

Musika Bulegoa Saria AMAK taldearentzat

🕒 Maiatzak 17

Musika Bulegoa Sariak 10 euskal artista eta talderen lana aitortu dute bere VI. edizioan. Chill Mafia, Esther Ensemble, Ramon Lazkano, Gaur, Maite Larburu, Olatz Salvador, Verde Prato, Trío Zukan, Motxila 21 eta AMAK izan dira aurtengo sarituak. Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkartek, bertako artista, talde edo musika proiektuek iaz burututako lanak saritu ditu aurtengo, 100 proposamen baino gehiagoren artean aukeratuz. Sariaren helburuak, besteak beste, euskal musikaren sektorea baloratzea, artisten lanak sustatzea, haien lanak ezagutzera ematea eta bultzatzea dira.



AMAK sariarekin / trofeoa



Astiasaran familiako trikitilariak kalejiran

Felicitas Astiasaran hil da

📍 Amasa

🕒 Ekainak 1

Felicitas Astiasaran Peñagaricano, Amasako pandero-jolea hil da.

Aingeru Berguices musikari eta folklore ikertzailea hil da

🕒 Ekainak 3

Musikari profesional eta folklore ikertzaile, ibilbide eta ekarpen oparoa egindako Aingeru Berguices Jausoro (Bilbo, 1957 - Galdakao, 2022) hil da ekainaren 3an 65 urte zituela. Bilbon, La Casilla ondoan jaioakoa zen Berguices. Akordeoia, trikitixa eta Bizkaiko dultzaina hainbat erromeria eta kalejiratan jotakoa zen, eta musikari profesional moduan aritu zen 25 urtez. Bestalde, emakume pandero-joleen inguruan ere egin ditu ikerketak. Gizarte frankistan emakumeek ezarria zuten rol hertsia gainditu eta publikoan dantzaldietan protagonismoa hartu zuten pandero-joleak aztertu zituen Berguicesek. Horren inguruan hitzaldiak, ikus-entzunezkoak eta aurkezpenak egin ditu azken urteotan.



Argazkia: Oier Araolaza

Panderoa protagonista Arrasaten

📍 Arrasate

📅 Ekainak 12

Galizia eta Euskal Herria lotu ditu panderoa ardatz izan duen Arrasateko pandero jaialdiak. Imanol, Motriku eta Leturia; Faltriqueira; Martineau bikotea; Kimua dantza kolektiboa; eta Laja II eta Lutxurdio igo dira Amaia antzokiko oholtzara hiruna kantu eskainiz. Pandero jaialdi hau, azken aldian panderoa hartzen ari den protagonismoaren isla dela azpimarratu dute antolatzaileek.



Arrasateko Trikitixa Eskola

20 urteren ondoren Etzakit taldea Aiako Andatza auzoan

📍 Aia

📅 Ekainak 19

20 urte pasa dira *Etzakit* taldea oholtzetatik aldendu zela. Ekainaren 19an ordea, gozatua hartu zuten talde honen jarraitzaile izandakoek. Gazte askorentzat zuzenean lehenengo aldiz entzuteko aukera ere izan zen. Xabi Solano Maiza, Kimua Dantza Kolektiboa, Amak laukotea, Maren, Gozategi taldea eta Pini aritu ziren jendaurrean. Festari bukaera emateko, *Etzakit* taldea oholtzara itzuli zen, 20 urteren ondoren. Azkenik, erromeria izan zen Elustondo anai-arrebekin.



Etzakit taldea Aian. Argazkiak: Gaizka Peñafiel



ARGITALPEN BERRIAK

LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS

LA CHICA MARAVILLA



Los Zopilotes Txirriaos taldeak bere laugarren lana argitaratu du maiztzean. 10 kantuz osatutako diskoa, rantxera doinuak nagusi, apirilean grabatu dute Beasaingo Pottoko estudioan. Diskoan parte hartu duten Konejo Eseberri, Eneko Dorronsoro, Julen Leuza, Ion Oses, Balotx, David Lanz, Ibai Indarz, Ander Zabalza, Lango eta Laura Villanuevak, euren eskaini diete azken lan hau.



GALBAHEA

KRISTINA SOLANO

Nor izan da zure erreferentea?

Nik soinu txikiarekin hasterako, soinu handia jotzen nuen. Ereñozun gure garaian ume gehienak soinu handiarekin hasten ginen. Familian badut izeba bat eta lehengusua, soinu handia jotzen zutenak eta haiek ziren nire erreferenteak. Gero soinu txikiarekin hasi nintzenean, ordurako Maixa eta Ixiar ari ziren erromeriak egiten beraien *kaja de ritmos*-arekin. Nik hori nahi nuen. Aristerrazun jotzen ikusten nituen haiek bezalakoa izan nahi nuen. Euskadi Irratiko igande eguerditako saioak oso gustura entzuten nituen eta azkenean lortu nuen haiek bezalakoa izatea.

Tolosaldeko ataria. Hauspo Artean. 2022/03/27

XABIER BERASALUZE LETURIA

Dituzun guztien artean, izango duzu pandero kuttunik?

120 bat pandero izango ditut etxean. Denekin ez dut jo oraindik. Galiziara joaten nintzenean, mota guztietakoak ekartzeko aprobetxatzen nuen. Soinuekin pasatzen ez dena pasatzen da panderoekin. Asko behar dituzu, ezberdina da jotzea biolin batekin, gitarra klasiko batekin, Do tonuko trikitixarekin edo Sol tonukoarekin, klarinetaarekin ari zaren edo zu bakarrik. Bakarrik jo behar baduzu, pandero suabea behar da, bestela boza jan egingo dizu panderoak. Pandero batzuk hemengoak ditut, eta besteak kanpokoak.

Tolosaldeko ataria. Hauspo Artean. 2022/05/07

ANDOITZ ANTZIZAR

Trikitiak zer egoera bizi du?

Bizirik dago bai Azpeitian, bai Euskal Herrian. Xabi Bordaren hitz batzuk irakurri berri ditut, 2004koak, eta hark zioen trikitia krisian ez ote zegoen. Hainbestetan irakurri dut trikitia krisian dagoela... Hori euskal kulturaren sintoma bat da; trikitia beti dago krisian, euskaraz eta euskaratik egiten den kulturgintza bezalaxe. Horrek sentipenetik gehiago du, ordea, menpekoea delako euskal kultura, baina oso-oso indartsu gaudela uste dut.

Urola Kostako Hitz. 2022/05/12

IRATI GUTIERREZ, AMETS ORMAETXEA eta LEIRE ETXEZARRETA

Tradiziotik asko edaten duzue, baina berritzaile-apurtzailea da Neomak?

Bai, tradizioa da gure oinarria, gure sustraiak tradiziotik datoz, baina hori izan da gure asmoa disko berri honetan. Ez da erraza izan baina gure helburua lortu dugu. Denetik egongo da diskoan. Tekno aldera ere joko dugu, baina tradizionala dena ere mantenduko dugu. Musikaz gain bisuala dena ere zaintzen saiatu gara, horrekin transmititu nahi dugun mezu hori jendeak ikusi ahal izateko.

Goiena.eus 2022/05/18

XABIER ETXANIZ

Markinako txapelketara oso berandu apuntatu ginen, martxoan. Horregatik denbora gutxi izan dugu piezak asmatu edo entsaiaitzeko. Hau izan da nire lehenengo txapelketa hasieratik bukaerara nire piezak jo ditudana. Niretzat erronka bat izan da neuk asmatutako piezak jotzea. Trikitixa adibidez, espreski horretarako sortutakoa izan da. (...) Nik profesionalki ez dut zerikusirik trikiti munduarekin baina beti esan izan dut gustatuko litzaidakeela 30 urte betetzerako nire piezekin disko bat grabatzea. 30ak pasa ditut, baina esperantza edukiko dut ea 40ak aurretik diskoren bat grabatzen dudana.

Maxixatzen.eus 2022/05/30

ENEKO DORRONSORO

Mota guztietako erromeriak probatu dituzu, triki eta panderoz jotakoak, talde anitzago batek lagundutakoak... Nola ikusten dituzu?

Triki eta pandero bikotean ez dut erromeria gehiegi egin. Asko gustatzen zait formatu hori, baina uste dut horretarako balio izan behar dela. Ni neu soinu-jole gehiago sentitzen naiz, trikitilari baino. Erromeri mota horietan instrumentu teknika ongi etortzen da, baina kasta behar da. Ni beste moduko erromerietan erosoago sentitzen naiz. Bakoitzak bere perfila bilatu behar du, eta nik nahiago dut beste norbaitek aurpegia erakustea eta ni atzean laguntzen egotea. Orain oso gustura nago nabilen formatuan.

Tolosaldeko ataria. Hauspo Artean. 2022/06/11



ATZERA BEGIRA!

Duela 50 urte, 1972ko apirilaren 16an, omenaldia egin zitzaion Faustino Azpiazu *Sakabi* eta Jose Mari Urbietta *Egañazpi* trikitilariei, Usurbilen.



Sakabi eta Egañazpi



atzera begira



UDA



Joseba Tapiak jaso du 2022ko Adarra Saria

📍 Donostia

📅 Ekainak 21

Lau hamarkadatan, bide oparoa egin du trikitiaren: Tapiak eta Leturia bikotearekin aurrena, eta bakarka azken hogeitun urtetan. Herri musika jasotzeko eta zabaltzeko, eta pieza berriak sortzeko egin duen lana goraipatu dute. Lau hamarkada dira Joseba Tapiak lehen aldiz plazetan jotzen hasi zela. Xabier Berasaluze Leturia lagunarekin aritu izan da urte luzez, baina bakarkako ibilbideari ere aspaldi ekin zion, duela hogeitun urte baino gehiago. Urteotan guztian bakarkako bederatzi disko plazaratu ditu. Donostiako Udalak, haren ibilbide oparoa saritzeko asmoz, Adarra saria eman dio aurten. Epaimahaiak aho batez erabaki du saria Tapiari ematea. Horretarako, haren ibilbide luzea ez ezik, beste hainbat arrazoi ere hartu ditu aintzat, besteak beste, haren «moldakortasuna —era askotako estiloetan eta musikari handi askorekin frogatu baitu bere musika bikaintasuna—, herri musikaren ondarea kontserbatu eta zabaltzeko izana, eta hainbat eta hainbat pieza berri konposatu izana, bai eta akordeoiak askotariko musika ingurune eta giroetan duen gaurkotasuna frogatu izana ere». Orain arte, Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Benito Lertxundik, Fermin Muguruzak, Anarik, Berri Txarrak taldeak, Kepa Junkerak eta Amaia Zubiriak jaso dute Adarra saria. Saria jaso ondoren, kontzertua eskaini zuen Victoria Eugenia antzokian.



Joseba Tapiak Adarra sariarekin



Trikitixa txapelketak. Argazkia: Ibon Errazu

Trikitilari gazteen txapelketarik ez da falta izan

Martxoan hasi eta irailera arte, Gipuzkoako hainbat herritan trikitilari gazteen txapelketak jokatu dira. Urteak urtera txapelketa gutxiago antolatu eta parte-hartzea ere murriztu dela jaketu dira antolatzaileak.

Lazkaoko trikitixa txapelketa. (Martxoak 26).
Txapeldunak Irati Arcelus eta Mirari Plazaola.

Getariako trikitixa txapelketa. (Maiatzak 28).
Txapeldunak Maitane Iturrioz eta Eider Amenabar.

Xanjuandegiko Trikitixa txapelketa. (Ekainak 4).
Txapeldunak Aritz Etxaniz eta Enaitz Alberdi.

Orioko trikitixa txapelketa. (Ekainak 29).
Txapeldunak Maitane Iturrioz eta Eider Amenabar.

Aiako trikitixa txapelketa. (Abuztuak 7).
Txapeldunak Irati Arcelus eta Mirari Plazaola.

Goiatzeko trikitixa txapelketa. (Abuztuak 14).
Txapeldunak Irati Arcelus eta Mirari Plazaola.

Zarauzko trikitixa txapelketa. (Irailak 7).
Txapeldunak Irati Arcelus eta Mirari Plazaola.

Hernaniko trikitixa txapelketa. (Irailak 18).
Txapeldunak Enaitz Alberdi eta Mirari Plazaola.

San Martin jaiak, Amatzako trikiti jaialdiak girotuta

📍 Iurreta

🕒 Uztailak 2

Iurretako Amatzu auzoko jaialdiaren seigarren edizioa ospatu zen uztailaren 2an. Leonen Orroak; Agurtzane eta Ion Elustondo; Imanol Arrola, Julen Begoña, Susana Gomez eta Jon Ander Azkue; Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea, Gorka Valdes eta Mikel Elizaran; eta Iñaki Plaza eta Alex Lopez izan ziren oholtzan aritu ziren parte-hartzaileak. Ondorengo afariarekin borobildu zuten eguna.



Amatzako Trikiti jaialdia

ARTIKULUA

“TXERTUBI” SOINU-JOTZAILEA

(Donostia, 1884 – Zarautz, 1963)

Xabier Etxabe Zulaika

Urte luzetako bilaketa baten emaitza da artikuluhau. Azken bultzada, eta ustekabeko emaitza, Euskal Herriko Trikitixa Elkartek egindako galdera baten ondotik etorri zitzaidan: Laxaro Azkunerren telefono-deia jaso nuen uda honetan, Jexux Zulaika “Beote” –edo “Beobate”–soinu-jotzailearen datuak eskatuz. Eman nizkion gure aitona zenaren datu zenbait eta, haien artean, berriro agertu zen Beoterren maisu izandako soinu-jotzailearen datua: “Txertubi” deitzen zioten harena, alegia. Guk etxean beti entzun izan ditugu Txertubiren aipamenak, aitona zenak asko fomatzen baitzuen; noiznahi jotzen zituen, gainera, hari ikasitako pieza eder askoak. Baina datu askorik ez neukan.

Aspaldi aitonari jasotako datuak berriro irakurtzen hasi nintzen, hari grabatutako elkarrizketak entzuten eta Elizako bataio-agirietan arakatzeko. Txertubiren sendikoak izan zitezkeen izen batzuk banituen, baina inportanteena falta zitzaidan: izen-abizenak – “Txertubi”, baserriaren izena baita–, eta datu-biografiko inportanteenak. Folklore munduko hainbat espezialistari laguntza eskatzen ere aritu nintzen, baina aspaldiko kontuak ziren inork ezer jakin zezan; horrelaxe nenbilen, kontu horrekin trabestuta, harik eta osabarekin hitz egitea erabaki nuen arte.

Osabak Txertubiren oinarritzko datu batzuk konfirmatu zizkidan eta, ustekabean, haren alabeta-kontu bat bizirik zela esan zidan; pasako zidala kontakturen bat. Modu horretan, osabaren eta nire lehengusu Mariaren lanari eskerrak, lortu nuen Txertubiren biloba baten kontaktua: Ignacio Olaizolarena; haren bitartez, Txertubi zenaren alaba Conchita Olaizolarekin hitz egiteko aukera izan dut. Laurogeita hamabost urteko adina eta memoria aparta du Conchita Olaizolak!

Guzti-guztietan nire eskerrona nahi diet adierazi: Juanjo Zulaika osabari, Maria Zulaika lehengusuari, Ignacio Olaizolari eta Conchita Olaizolari.



Conchita Olaizola Zarauzko bere etxean (2022-10-15)

Argazkia: Xabier Etxabe

Batista Olaizola Aldabalde "Txertubi" soinu-jotzailea Donostian jaio zen, Aiete auzoko Santa Teresa baserrian, 1884an. Hamaika senidetatik bosgarrena zen. Aitaren aldetik Itziar-ko *Txertudi* baserrikoak zirenez, handik hartu zuten Batista eta bere senideek "Txertubi" izena, Donostian jaio eta bizi arren. "Txertudi"- "Txertubi" izen aldaketa ez da, inondik ere, gauza harrigarria, idatzietan begiratzuz gero Itziar-ko etxe hori modu askotan idatzi izan baita: Txertudi, Txertubi, Txerturi, Txarturi...

Esan bezala, gure protagonistaren gurasoak Donostian jarri ziren bizitzen, Aiete auzoan, hain justu. Bertan jaio ziren bikotearen hamai-ka seme-alabak. Baserriaren kokalekua ezin egokiagoa zen jendea biltzeko, garai hartako komunikazio-bide nagusienetakoa baitzen bertatik pasatzen zen galtzara; itxuraz, sarritan izaten zen festa baserri inguruan. Batista soinu-jotzen hasi zen txikitatik, eta haren senide batzuek, oster, herri-kirol giroan lortu zuten ospea, besteak beste idi-demetan eta bola-jokoan. Batistaren anaietako batzuk eraikuntza-lanetan hasi ziren Donostian, eta Batista bera ere aritu zen langintza horietan. Automobilekin eta garraio-lanetan ere nabarmendu ziren Txertubitarrak, eta gerora horretan segituko zuen Batistak.

Batista Zarautzen zela, festaren bat ospatzen, Mikaela Izeta zarauztarra ezagutu zuen; ezkondu eta Madrilen egon ziren bizitzen hamar bat urtez. Izan ere, Madrilgo ministro batek, Donostian zela, haren txofer izatea eskaini zion Batistari, eta honek onartu. Madrildik bueltan Zarautzen jarri ziren bizitzen. 1920. hamarka-

da zen. Hiru haur izan zituzten Batistak eta Mikaelak: Ignacio, Ramonita, eta Conchita. Azken hau, elkarrizketatzeko aukera izan duguna, 1927. urtean jaio zen.

Zarautzen garajea jarri zuen Txertubik, Gipuzkoa kalean, eta mekanikari- eta garraio-lanetan aritu zen urte askoan. Gaztetako festa-ibilerak utzita bazituen ere, bazuen, artean, soinu-jotzaile onaren fama; harengana joaten hasi zen txiki-txikitatik Jexux Zulaika "Beote" soinua jotzen ikasteko asmoz. Batista baino hogeita hamar urte gazteagoa zen Jexux. Molde zaharrear aritzen ziren: Batistak garajeko lanean atseden hartzen zuenean, aurrez aurre jarri, batek jo eta besteak, entzunez eta ikusiz, hark egiten zuena gogoan hartu eta jotzen saiatu.

Kaleko ibilerak utzita izanagatik etxean soinu-jotzen segitu zuen Txertubik, festa edo zelebrazioaren bat tarteko zenean: Gabonak zirela, etxekoren baten bataioa zela... Dantzarako piezak ez ezik, Txertubik abilitade aparta izan behar zuen garaiko modako piezak soinura ekartzeko: Conchitak bereziki gogoan ditu Madrilen militarrei ikasitako martxak, San Martzial martxa, eta fandangoak. Beheko argazkian, San Pelaio egunez, familia-bazkari batean ageri da Txertubi soinu-jotzen, biloba baten bataio-festan. Esku artean du azkeneko urtetan erabili izan zuen soinua, hogeita bat botoiko Larrinaga-Guerrini dotorea. Oraindik etxean du gordea haren alabak.

1963ko udan, Zarauzko Euomar etxea nola ari ziren altxatzen begira zegoela, bihotzekoak eman eta bertan hil zen Batista Olaizola "Txertubi".

Batista Olaizola "Txertubi" soinu-jotzen, familiako bataio-festa batean (1954-06-26). Argazkia: Conchita Olaizolaren artxiboa





JOSEBA TAPIA

«Trikitilari handiak ezagutu ditut, miretsi ditudanak. Adibidez, Iñaki Garmendia Laja, Faustino Azpiazu Sakabi eta Jazinto Rivas —ez nuen ezagutu, ni jaio nintzen urtean hil omen zen, baina osaben bidez jakin nuen nolako trikitilari bikaina zen—. Baina, azkenean... saria niri eman didate. Eskritore eta letragile oso onak eduki ditut aldamenen: Jon Sarasua, Jakoba Errekondo, Koldo Izagirre, Joxe Mari Lopetegi... Baina, azkenean, saria niretzat. Instrumentu onekin jotzeko aukera eduki dut: Zero Sette, Castagnari, Hohner, Larrinaga Guerrini... Baina, hala ere, saria niretzat. Ez al da marka ikaragarria?»

Berria. 2022/06/22

Herri-ondarea kontserbatu eta zabaltzea egozten dizute.

Bai, hala da. Hala ere, Laboak, Ruper Ordorikak, Osakorrik, Benito Lertxundik... nahiz eta kantagintza modernoa izan, kantagintza tradizionala berreskuratu zuten. Beraz, oso ikuspegi zabala eta interesgarria zuten. Guri egozten zaigu, baina horiek dagoeneko ari ziren trikitia edo antzeko kantutegi tradizionala sartzen euren erreperitorioetan. Nire ustez, haiek izan zuten argitasun hori.

Txintxarri. 2022/06/24

GORKA VALDES ETA MIKEL ELIZARAN Amatzako jaialdiak badu bere xarma.

Jaialdira joan nintzen lehenengo urtean, buelta bat ematera irten nintzen, mugikorra poltsiko batean eta giltzak bestean. Lagun bigaz gurutzatu nintzen eta trikitilaria izanda ea Amatzara zelan ez nindoan galdetu zidaten. Eurekin joateko esan zidaten eta biharamunera arte egon ginen elkarregaz, goizeko seiak arte. (...) Amatzakoa oso jai polita izaten da. Auzo txiki bat denez, denak inplikatzeko dira jaietan.

Anboto.org 2022/07/01

MAITANE AYERZA

Zer esango zenioke zure tresnari?

Eskerrik asko lehenengo. Bera gabe ezingo nituen urte hauetan bizi izan ditudan esperientziak bizitu. Momentu batzuetan barkatu ere bai. Agian momenturen batean ez badut ongi zaindu, lenguetak ere behin baino gehiagotan apurtu izan zaizkidalako eta berak ere min hartuko zuelako. Nire bizitzako parte handi bat izan da eta beraz eskerrik asko nire bide-lagun izateagatik.

Tolosaldeko ataria. Hauspo Artean. 2022/07/02

JOSUNE ARAKISTAIN

Josune Arakistain musika estilo batekin identifikatzen duenik bada. Eraginik izan al du horrek 'Sunday' abestiak izan duen harreraren?

Niretzat ez da erraza izan kantu hau ateratzea, batez ere, horregatik, jendeak musika estilo jakin batekin identifikatzen naudelako. Kostatu zait onartzea, agian, ez naizela soilik estilo bakarrekoa. Beste hainbat musika estilo gustatzen zaizkit, eta zergatik ezin ditut bi musika estilo egin? Badirudi musika estilo bat egiten baduzu, bestea ezin duzula egin. Horregatik, kostatu zait nire burua seguru egon eta esatea: beno, jendeari ez bazaio gustatzen estilo hau, ez da ezer gertatzen; batzuei gustatuko zaie gehiago Sune eta beste batzuei gehiago Huntza, baina ni biak naiz.

Noticias de Gipuzkoa. Ortazar. 2022/08/02

AMAIA TABERNA

Hor Dun Koxka taldean jo duzu. Nola sortu zen?

Bai. Trikitixa munduan betiko lau lagunek jarraitu genuen, eta trikiti zale amorratuak ginen. Aunitz elkartzen ginen eta talde bat sortzeko ilusioa sortu zen. Hasierako talde horri bertze trikitilari bat ere gehitu zitzaion beranduago eta saiakera egin genuen behintzat! (...) Kateak hautsita kanta ere grabatu genuen "Haziak II" diskorako eta egia erran esperientzia hagitz aberasgarria izan zen, eta hagitz oroitzapen politak gelditu zaizkigu hartatik. Irri ederrak egin genituen, eta errepikatze gogoa ere badugu!

Ttipi-Ttapa. Erran.eus. 2022/09/11



HAMAICA IKUSTEKO!

XABIER MALBADIK TRIKLATUA SORTU DU

Nork esango luke, teklatu batekin soinu txikiaren hotsa entzungo genuenik! Xabier Malbadi albizturtarrak garbi ikusi zuen egingarria zela eta 3D inprimagailu baten laguntzarekin sortu du instrumentua.





Zer den triklatua

Triklatuaren oinarria ordenagailuan idazteko teklatu bat da (hortik datorkio izena, triki-teklata), bere teklak aldatuta soinu txiki baten botoien forma eta koka-pena izan ditzen. Hausporik ez duenez, ezker eskuan mekanismo bat du, eskuaz bultzatzean hauspoa ixteko agindua

ematen duena. Soinujoleontzat nahiko intuitiboa da, segituan ohitzen zara. Triklatuarekin ikasten hasten denak ere erraz egingo luke soinu normalera saltoa.

Triklatu honen izen komertziala Soinu Txiki IX10 izango da, eta soinu txiki normal baten 23+12 botoiez gain, beste 6 botoi ditu goiko aldean tonua/oktaba aldatzeko (edozein tonu eta oktabatan jar daiteke).

Triklatua ordenagailu edo Smartphone batera konektatu eta bertan aplikazio batek entzunaraziko du zapal dutako botoiari dagokion nota. Gainera, aplikazioan instrumentu ezberdinen soinua aukeratu daiteke. Lau ahotsetako Soinu Txiki profesional baten soinuaz gain, Larrinaga Guerri-ni klasiko baten soinua ere aukeratu daiteke.

Materiala

Teklatuaren gainean gehitzen diren botoi eta mekanismoak 3D inpresora batekin egin dira, eta proba askoren ostean, PLA bioplastikoa da hautatutako material nagusia, ekologikoa delako (artotik eratortzen da, ez petroliotik).

Neurria eta pisua

31 cm altu, 12 cm zabal eta 6 cm sakon neurtzen ditu, eta 500g inguru pisatu.

Triklatua sortzeko ideia eta gauzatzea

«Aspalditik nuen ideia buruan; ordenagailuko teklatu baten eta soinu baten teklatuaren arteko antzekotasuna begi bistakoa baita. Hala ere gauzatzeko prozesua luzea izan da. 2012an unibertsitateko proiektu baterako irakasleari planteatu nion ideia eta hipotetikoki landu nituen produktuaren eta ordenagailuko programaren ezaugarriak, baina ez nion jarraipenik eman, artean ez neuzkalako nahikoa baliabide eta ezagutza».

2020an, alaba jaio zitzaionean, etxean soinua jo ahal izateko ideia hau berreskuratu eta forma ematen hasi zen. Orduan lortu zuen ordenagailuan teklatuarekin jotzea.

2021ean Sonakay taldearekin jotzen hasi, tonu ezberdineko soinuen beharra arazo bihurtu zen Xabirentzat. «Zuzenekoetara 4 soinu eraman behar izaten nituen eta hala ere kanta batzuk soinuarentzat egoki ez ziren tonuetan jo».

2022ko ekainean 3D inpresora bat erosi eta horrek eman zion proiektuari behar zuen bultzada, abuzturako prest zegoen lehen prototipoa eta Sonakayekin zuzenekoan estreinatu zuen Hammond baten soinua jarrita. Urrirako trikitixaren soinua gehitzea lortu zuen eta kilometroetan probatu zuten aurreneko kalejira batean jotzen.

Momentu honetan alpha fasean dago proiektua (honek esan nahi du garapena itxuraz amaituta dagoela baina oraindik ondo probatu gabe), prototipo batzuk fabrikatu eta lau alpha-testerri eskatu zaie probatu eta akatsak bilatu edo hobekuntzak proposatzeko: Ander Malbadi, Ines Osinaga, Xabi Arakama eta Manex Torrealdai. Beraien ekarpenekin produktua hobetu eta beta fase bat hastea da helburua, salgai jarri aurretik, talde haundiago bati triklatu bana eman eta euren ekarpenekin azken produktua fintzeko. Beta-tester izan nahi dutenek soinutxiki@gmail.com helbidera idatzi dezakete baldintzak ezagutzeko.

«Salgai jarri aurretik patentearen onarpena edukitzea ere nahi dut, nahiz eta ez den ezinbestekoa. Eskaera eginda dago eta 2023 udaberrirako publikoki salgai jarri eta eskaerak onartzen hastea nahiko nuke». Helburua da modelo basikoa 500€ inguruan saltzea.

Modelo ezberdinak

IX10 triklatuaren 3 modelo eskainiko dira:

-Basikoa: Windows ordenagailu batean bakarrik erabili daitekeen SoinuTxikiBirtuala programarekin.

-RGB: Basikoa bezalakoa baina LED argiekin, hainbat kolore eta efektu motarekin. Argi hauek abestiak erakusten laguntzen dute.

-MIDI: RGB bezalakoa baina Windowsez gain, Mac ordenagailuetan ere erabili daitekeena, baita Android edo iOS mobil/tabletetan ere (Android eta iOS-erako trikitixaren soinua oraingoz ez dago garatuta). Triklatu hau MIDI bezela identifikatzen da, beraz MIDI ulertzen duen edozein programa kontrola dezake.

Triklatuaren diseinua bezero bakoitzak erabakiko du. Marrazki eta testuak aldatu daitezke eta kolore aukera zabala egongo da, transluzidua eta egur itxurakoa barne.

Etorkizunera begira 3 lerroko modelo bat ere prestatzea ere aurreikusten da (14 botoi lerro bakoitzean), eta 20 baxurekin. Honek esperimentatzeko joku gehiago emango luke, beste soinu mota batzuk ere probatzeraino: soinu handia, sistema simetrikoa...

Xabiren ustez SoinuTxikiBirtuala programa oso baliagarria izango da irakasle eta ikasleentzat. «Irakasleak abestiak triklatuarekin jo eta SoinuTxikiBirtualarekin grabatu ditzake STB formatuan. Ondoren ikasleei abesti hoiek bidali, eta ikasleak bere ordenagailuan SoinuTxikiBirtualarekin ireki ditzake, nahi badu abiadura mantsotu, eta entzuteaz gain pantailan ikusi dezake notaz nota zein botoi zapaldu behar dituen. Gainera, LED argidun triklatuetan, jo beharreko botoien argiak ere banaka pizten dira entzutearekin batera, adibidez: hauspoa itxiz jo behar bada botoi hori berdez pizten da eta hauspoa irekiz jo behar bada aldiz, gorriz. Gainera, nahi izan ezker hasieran bajuak isildu ditzake eskuin eskuan zentratzeko. Abesti horien audioa ere esportatu daiteke, beraz sorkuntzarako ere oso potentea da». Triklatua soilik erabiliz, instrumentu ezberdinen soinuak grabatu eta abesti oso aberatsak osatu daitezke.

UDAZKENA

ALBISTEAK

Tolosaldeko II. Trikitixa eguna

📍 Tolosa

📅 Urriak 15

Jendea berriro elkartzeko gogoz zegoela ikusi dute Hauspotuz Trikitixa Elkarteko kideek. Horren erakusgarri, urriaren 15ean Tolosan Tolosaldeko ehunka trikiti zale elkartzea. Goizean Lopez Mendizabal plazan elkartu eta ongi alaitu zituzten inguruko kaleak. Bazkaldu ondoren berriz, kalejira erraldoia egin zuten Trianguloa plazatik abiatuta, alde Zaharrean barrena.



Hauptotuz eguna

Trikiti eta pandero doinuz bete da Azpeitia VII. Trikigiro jaialdiarekin

📍 Azpeitia

📅 Urriak 29

Hasiberriak eta beteranoak, ikasleak eta irakasleak, haur, gazte eta heldu, musikaz bete dute herria arratsaldetik gauerarte. Sanagustin kulturegunean hasi zen ekitaldia, trikitilari eta pandero-jole gaztetxoek jaialdi-erakustaldiarekin. Jarraian, plazan familia argazkia atera eta kalejira egin zuten plazatik Erdikalera. Sanagustinera itzulita, 170 lagun elkartu ziren afarian eta afalondoko erromeriak goizalderarte iraun zuen.



Oñatiko trikiti jaialdia. Argazkia: Ibon Errazu

Urriaren erdia, trikiti zaleek Oñatin begia

📍 Oñati

📅 Urriak 22

Oñatiko Santana antzokia jendez bete zen urteroko trikiti jaialdiaren aitzakian. XIV. edizio honetako protagonistak Lutxurdio, Laja, Aitziber eta Ibon; Andoitz Antzizar, Maider Zabalegi eta Urbil Artola; Irma eta Jokin; Mikel Albistegi, Olatz Kortabarria eta Oier Kortabarria; Leire Zumeta, Amaia Arza eta Gari Otamendi; Leturia, Alabier, Irune eta Izer; eta Irati eta Mirari izan ziren. Jaialdiaren ondoren trikipoteoa eta afaria izan ziren.



Argazkia: Ibon Errazu

Nazioarteko trikiti jaialdia bueltan

📍 Errenteria eta Galdakao
🕒 Azaroak 5 eta 6

Hamar urteko etenaren ondotik, EHTEk antolatutako Nazioarteko Trikitixa Jaialdia izan da Errenterian eta Galdakaon. 20 urte joan dira lehenengo Nazioarteko Trikitixa Jaialdia egin zenetik. Hala, ospakizun giro honetan, trikitia berriz ere nazioarteko erakuslehoan jarri du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Liv Hallum eta Ivan Caro kataluniarrak, eta Damien Mullane irlandarra izan dira atzerriko ordezkariak. Hauekin batera, Euskal Herritik bertatik, Eneko Dorronsoro eta Fredi Pelaez, Eneritz Furyak, eta Süne eta Huizi igo ziren oholtzara; proposamen berritzaileekin denak ere.



Nazioarteko trikiti jaialdia
Argazkiak: Gaizka Peñafiel



Kepa Junkerari buruzko dokumentala Fermin Aioren eskutik.

🕒 Abenduak 2

Fermin Aio zuzendariak gidatuta, *Berpiztu* filmak trikitilariaren ibilbide artistikoa erreparatzen du, eta bere errehabilitazio prozesua azaldu. 2018ko abenduan iktus bat izan zuen Junkerak, eta oholtzetatik kanpo ibili da harrezkero. Ibilbidean berarekin askotariko bizipenak izan dituzten hainbat artistak parte hartu dute filmean. Abenduaren 2an zinema aretoetara iritsi den dokumentalak hainbat testigantza jasotzen ditu: besteak beste, Ara Malikian, Santiago Auseron, Pablo Milanes, Pedro Guerra, Estrella Morente, Dulce Pontes, Joseba Tapia, Ibon Koteron, Motriku eta Sorgiñak taldea agertuko dira.



Berpiztu dokumentalaren kartela

AMAK taldearen amaiera

📍 Intxaurren

🕒 Abenduak 3

Hasiera guztiek bukaera bat dutela esan ohi da. Horixe esan zuten AMAK taldekoek beraien aldi baterako atsedenaldia iragartzerakoan. Kontzertu berezia eskaini zuten Intxaurren, familiako eta lagunez inguratutik. Disko bat, *Musika Bulegoa Saria* eta beste hainbat bizipen eskaini dizkien proiektuak etenaldia behar duela erabaki dute Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kristina Solanok.



Argazkia: Ibon Errazu

TRIKITIXA ELKARTEAREN BERRIAK

📍 Azpeitia

🕒 Abendua

PANDERO IKASTAROA IRAIDE ANSORENAREKIN

Indartsu hasi du urtea EHTEK Iraide Ansorenaren eskutik "Panderoak, edo panderoen ikastaroa" antolatuta. Irakasle eta ikasle ugari gerturatu da Azpeitiko Basazabalera, aretoa beterik izan dugularik. Iraidek panderoa jotzeko modu ezberdinak irakatsi dizkigu, baita erritmoak ulertzeko eta eramateko ohikoak ez diren moldeak ere. 2019an abiatutako ikastaroen zerrendatik azkena izan da hau, bazkideek beraiek proposatutako ikastaroetan seigarrena. Etorkizunean gehiago izango direlakoan, jasotako erantzunaren balorazio positiboa egin du EHTEK.





Pandero ikastaroa Iraide Ansorenarekin

TRIKITIXA UDALEKUAK OTABARDI LANDETXEAN EKAINAREN 27TIK 30ERA

Urteko hitzordu finkatueta bat da Trikiti Udalekuena. Euskal Herri osoko ikasleak zain izaten dira maiatza aurrera doan neurrian izen ematearen irekierarako. Ohiko legez, Asteasuko Otardi Aterpetxean izan da aurtengoa ere egonaldia, eta Xabier Malbadiren triklatuaren aurkezpenarekin eta Ruben Iasiren perkusio ikastaroarekin jantzi dira bertaratuak. Tartean txangoez, jolasez eta Asteasuko igerilekuaz gozatzeko aukera izan dute eguraldia lagun.




Trikitixa Elkarte Basazabalen

ELKARTEA BASAZABAL JAUREGIRA LEKUALDATU DA

Azpetitiko Udalaren laguntzaz egoitza berria estreinatu du aurtengoa Elkarteak. Enparan kaleko 18.ean dagoen Basazabal jauregiko lehen solairu osoa EHTEren ardurapean jarri du Udalak, etorkizunean Trikitiaren Museoa izan daitekeenaren lehen haziak ere erein direlarik. Elkartearen sorrerarik bertatik amestu izan den proiektuak ere laster izango ditu ateak irikita.

MAURIZIAREN KOMIKIA MARTXAN

“Elgeta sasi artean” komiki liburuarekin gozatu ondoren, berriz ere hitzarmen berri bat egin du EHTEk Ikastolen Elkartearekin; oraingoan Maurizio Aldeiturriagaren bizitza kontatzen duen komiki liburuari ekin zaio. Aurreko lanaren gisan, Xabiroi komiki aldizkarian 8 ataletan argitaratuko da lehenik hurrengo hiru urteetan, eta 2025erako komiki liburu batean bilduko dira atal guztiak. Garluk marrazkigileak hartu du Mauriziaren irudiaren ardura, eta Garbiñe Ubeda da haren bizitza kontatzeko gidoia ontzen ari dena. Lehenengo atala Xabiroi aldizkariaren abenduko alean argitaratu da dagoeneko.



NEOMAK

Neomak



Taldearen izen bera daraman diskoa kaleratu dute Eneritz Aulestia, Alaitz Eskudero, Leire Etxezarreta, Irati Gutierrez, Maria Lasa, Amets Ormaetxea eta Garazi Otaegik. Elkarrekin ohol-tzetara itzultzean sugarrak piztuta irauten zuela ohartu ziren eta horrek proiektu berri honi hasiera emateko indarra eman zien. Beraien esentzia mantentzearen lekuko dira hainbat urtez aldean eraman dituzten soinu txikia eta pandero desberdinak. Lan berri honetan, doinu tradizionalak estilo organiko zein elektronikoz jantzi dituzte. Sortu dituzten melodia berrietan hitzek garrantzia berezia dute. Grabaketa eta nahasketak Haritz Harreguyk egin ditu, eta ekoizpena, berriz, Alejandro 'Jimbo' Páezek.

ETXEBARRIA AITA SEMEAK

Lau belaunaldi



Koldo Etxebarria (1960), 1975ean hasi zen bere aita (Luis Etxebarria 1928-2005) eta aitonaarekin (Eduardo Etxebarria PITI 1900-1993) batera soinu jotzen. Orain, Koldo eta Unaik kaleratu dute diskoa, aurreko belaunaldiei keinua eginenez. Kantu ezagunen bertsioez gain, abesti propio bat ere txertatu dute diskoan. 12 abestiz osatutako diskoa Erretes Tudela estudioan grabatu dute urria eta azaroan.

MIREN ETA ROBERTO ETXEBARRIA

Kolpatuz



Roberto Etxebarriaren ibilbideko azken lana da Kolpatuz diskoa. Aurreko bi urteetan bezala, Robertok Miren alabarekin kaleratu du lan hau ere. Trikitilari bizkaitarrak lan honetako doinu batzuen sorkuntza prozesua orain dela urte batzuk hasi bazuen ere, orain ondu eta erakutsi du azken emaitza. Era askotako doinuak aurkitu daitezke diskoan, instrumentu anitzez lagunduak. Orain helburua herriz herri lan berria aurkeztzen ibiltzea da.

KEPA JUNKERA


Berpiztu



Kepa Junkera trikitilari bizkaitarrak bere ibilbide profesiona- la iruditan jasotzen duen liburu- a plazaratu du, "Berpiztu" izenburu- pean. Abenduaren 5ean aurkeztu da liburu Bilbon, Arte Ederren Museoan, etxekoek, lagunek, era- kundeetako ordezkariak eta obran parte hartu duten hainbat artistek lagunduta. Sortzailearen ibilbide osoa biltzen du liburuak, disko- z disko. Joseba Martin kazetariak idatzi ditu lan bakoitzari buruzko testuak, eta 40 artistek espresuki libururako sortutako lan grafiko bana ere biltzen du argitalpenak. Junkerak sortutako 400 abesti in- gururen partiturak ikusi ahal iza- teko aukera ematen duen QR kode bat ere badakar lanak.

INES OSINAGA

Itsasoa da bide bakarra



Itsasoa da bide bakarra disko-liburuak hamasei kantuez gain, argazkiak, hitzak eta Inesen bizipenak jasotzen ditu. Martxoan egonaldia egin zuen Inesek Kuban eta bertako uharteko emakume musikariekin ikasitakoa erakusten du diskoan. Bere bakarkako lehen lana bada ere, ia 40 kola- boratzaile ditu diskoan. Bidai luzeko kantuak dira, edo hobeto esanda, kantuak dira bidaia. Euskal Herri- tik Habanara, eta bueltan hain zuzen. Duela ia hamar urte Joseba Sarrionaindiak Habanan sortu zituen do- zena bat testu, eta Inesen laguntzarekin orain kantu bihurtu dira. Gaur egun, Sarrionaindia Euskal Herrian dela, kantuok hartu eta bueltako bi- daia egin da. Proiektua Joseba Jaka bekaren laguntzaz garatu da.



JUAN MARI AZKUE

Aristerrazuko erromeriak bueltan



zen, goizetik elkartzen ziren neska eta mutilak eta iluntze arte hemen egoten ziren».

Juan Mari Azkue Albeniz (Aia, 1955) pozik dago jai arratsaldetan etxe ataria berriz ere jendez beteta ikusten duelako. Azaroaren 1ean eman zitzaion hasiera 2022-2023 denboraldiari, eta Izer eta Alabierrek eta Elizagoien ahizpek eskainitako erromeriara 600dik gora lagun gerturatu ziren.



Aristerrazuko erromeriak bueltan

Aristerrazuko erromerien hasiera

Zehatz mehatz inork ez daki Aristerrazun noiz hasi ziren erromeriak. Juan Marik txikitatik ezagutu du erromeria baserrian. Bere osaba eta etxeakoak hasi ziren antolatzen, auzoko lagunekin batera. Soinu-jole bat ekarri eta arratsaldez festa jartzen zuten. «Gerra ondorenean, 1940an behintzat hasiko ziren erromeriak. Aristerrazu baserria erre aurretik ere zerbait egiten zela entzuna dut». Beheko tabernan ere tarteka izaten zen erromeria, baina Aristerrazuk hartu zuen berehala indarra. «Nire osaba eta izeba oso trikiti zale eta dantzariak ziren, baita auzoak ere. Eliza, eskola eta taberna ere hemen ziren, eta hau zen zentroa. Bilgune bat

Erromeria mandiotik etxe atarira

Duela 60 bat urte, 1960-1965 urte inguruan jaitsi zen erromeria mandiotik etxe atarira. «Mandioan jendea dantzan hasten zenean oholak hausten ziren eta beldurra ematen zuen, orduan kanpoan egiten hasi ginen» dio Juan Marik. Inguruan, Aian bertan ere izaten zen erromeria, Iturriotzen ere bai, Granadan, Altzolan... Aristerrazukoa igandero hasi zenean indarra hartu zuen eta besteak geratu egin ziren.

2008tik aurrera gaur egun ezagutzen den formatuan

1985etik aurrera, 10 bat urtez, erromeriak bi zati izaten zituen. Arratsaldeko lehen zatian soinu-jole gazteak aritzen ziren eta gauen izaten zen beteranoen txanda. «Martinen eskolako gazte asko etorri izan da hona lehenengo txanda horretan jotzera». Lehenengo ikasten ari ziren gaztetxoak, eta gero 21:30etatik aurrera helduak. «Exitoa izan zuen, baina itzaltzen joan zen, gaztetxoek jotzen zutenean inor ez, eta hori beraientzat ere tristura zen. Urte batzuk pasa genituen horrela, agian gehiegi». Ondoren, 5 bat urtez erromeria gauetz bakarrik egin zen. Orain ezagutzen den sistema hau (erromeria arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara izatea) 2008an hasi zen. Segituan ikusi zen horrek funtzionatzen zuela eta indarra hartzen hasi zen.

Andatza Erromeria Elkartea

Soinu-jole gazteak erromeriaren lehen zatia jotzera etortzen zirenean, Martinen laguntzarekin eta gaztetxo hauen gurasoekin sortu zen lehenengo elkarte. Urte baten buruan, hau desegin, eta Andatza Erromeria Elkartea izenarekin sortu zuten elkarte berria, Martxel Ansa, Joxe Alkain eta Juan Mari Azkuek. «Elkar-teak tabernari gauzak asko erraztu zizkion, eta otsailean elkarte berri dugun arte, horrela jarraitu dugu». Ibon Errazu, Iosu Arrizabalaga Izer, Itsaso Elizagoien eta Irune Elizagoien, Juan Mari berarekin batera dira gaur egun Andatza Erromeria Elkartea osatzen duten kideak. «Oztopo galantak izan ditugu, uste baino luzeago joan da, baina gazte hauek izan duten kemena, gogo... hitzez ezin dut azaldu kide berri hauek hau guztia martxan jartzeko egin duten lana» azaldu du Juan Marik.



Andatza Erromeria Elkartea

Etorkizunera begira

Juan Mari pozik dago Aristerrazun ikusten duenarekin. «Gaur egun jendea gogoarekin dago, edade desberdinetako jendea denak elkarrekin gustura, hori da polita; heldua, zahartxoagoa, sasoikoa, gaztetxoak...». Euskal Herriko txoko guztietatik gerturatzen da jendea Aristerrazura, eta gero eta gazte gehiago dira ohitura hau hartu dutenak. «Garai batean Izer, Lutxurdio, Ibon... neska eta mutil, gazte koadrila handia hasi zen etortzen, eta haiei esker ere gerturatu zen jende gaztea. Nik orduan ez nituen eza gutzen, baina poliki-poliki harremana egin eta hauek lortu dute jendea mugitzea».

Lan guztiak ematen du bere fruitua, eta badi-rudi, Aristerrazun oraindik trikiti doinuak ez direla itzaliko. Taberna berriro zabalik, igande eta jai egunetan erromeriak izango dira 18:00etatik 21:00etara. «Nik galdutzat jotzen nuen hau. Uste ez baduzue ere, kezkatuta eta isilik denbora asko pasa dut. Taberna eta dena gure mende zegoen eta ikusten nuen hau bukatzera zihoala». Juan Marik ez zuen inondik ere Aristerrazuko erromeria galtzerik nahi.

Honek aurrera segitzea da Juan Mariren nahia, baita Andatza Erromeria Elkartearena ere. «Orain Aristerrazuren etorkizuna, erromeria zale, soinu-jole eta dantzarien esku dago».



GARAZI VELASCO

«Kepa Junkeraren bidea birpasatzen da *Berpiztu* dokumentalean. Horrez gain, errehabilitazioa azaltzen da; ez delako izkutatu behar. Ondarea eta bere gaur egungo egoera berraurkituko dira dokumentalean, borrokan diharduelako Kepak. Junkeraren aldaketa agerikoa da, baina harago doa dokumentala; ez da tris-tea. Sentsibiltate handiz jorratu da gaia. Ebo-luzio bat ikusten da filmean zehar eta eboluzio horretan dago oraindik. (...) Hainbat pertsonen kolaboratu dute dokumentalean. Kepa Junke-rarekin harreman estua zuen jendea bilatzen saiatu gara. 150 abesti inguru ere agertzen dira; bidai musikala da. Keparen burmuina azkar doa eta dokumental honetarako ere ideiak eman ditu».

Eitb.eus. Faktoria. 2022/09/21

ASIER GOZATEGI

«Belaunaldi guztiak biltzen dira gure kontzertuetan, eta denak egoten dira gustura. Harrigarria da. Talde batek izan dezake arrakasta eta aurrera jarraitu, baina publikoa ere adinean aurrera doa, eta adin konkretu bat mugitzen du. Guri gertatzen zaigu 14 urte bueltatik hasten dela publikoa, eta hortik aurrera jarraitzen du; adin ertainekoak eta nagusiagoak ere badaude. (...) Hitzak idatzi genituenean orain publikoan dauden gazteenak jaio gabe zeuden! Ikaragarria da».

Gipuzkoako Hitza. 2022/09/30

MANEX TORREALDAI

«Gure instrumentuaren bueltan biltzen gara, gehiena gustatzen zaiguna egiten; hau da, instrumentua jotzen, elkarrekin, bazkari baten bueltan... aitzakia perfektua da ondo pasatzeko. Tolosaldeko Trikitixa Egunarekin, hemen gaudela adierazten dugu, Tolosaldean trikitilariak badaudela, asko gainera, elkartzen garela eta gauzak egiteko gogoia dugula adierazi nahi dugu. Esfortzu handia eskatzen du horrelako eguna antolatzeak, eta eskertu behar da elkar-teko kideek egiten duten lana eta adierazten duten nahia».

Tolosaldeko Ataria. 2022/10/14

AINARA SAIZAR

Soinu edo panderoa ikasten zenueneko oroitzapenen bat?

Oroitzapen asko dauzkat, baina lehen aipatu bezala ia dena bila joan gabe gertatu zait. Xabi ezagutu nuen eta hori izan da niretzat gauzarik onena. Oraintxe bertan behar beharrezko pertsona dut Xabi. Oroitzapen asko dauzkagu elkarrekin.

Tolosaldeko Ataria. Hauspo artean 2022/10/15

ANDOITZ ANTZIZAR

Zer du berezi trikitiak?

Trikitia kaleko instrumentua da, kalea gurea da, trikitixarena. Klean gaude eta beraz, herriarena da. Eta herritarrena denaren partetik horrek egiten gaitu hain maitatuak. Beste instrumentuen aldean daukagun berezitasun garrantzitsuena uste dut hori dela, eta herriarena izaki, oholtza gainera eramateko prestigioa behar du. Ez dugu zertan klean geratu beharrik. Kalea gurea izatearekin batera oholtzan ere egon behar dugu, eta horretarako aukera paregabea da nazioartekoa. Klean entzuten dugunaz harago, oholtza gaineen entzungo duguna erabat ezberdina izango da, baita aberasgarria ere.

Oarsoaldeko Hitza. 2022/11/04

IOSU ARRIZABALAGA, IZER

Zer moduzko maisua izan da zuretzat Laja?

Lajak piezak erakutsi zizkidan, noski, baina Lajak erakutsi zidan soinua jotzen, hor dago aldea. Soinua jotzen jakitea da zaila, zerbait entzun eta behatzak ikustea, eskola zaharra. 14 urterekin, berandu hasi nintzen. Aitarekin etxean aritzen nintzen, baina zerbait jakin zenuen, Lajak aitari: «Ekarri ezak hona, bestela ez dik gauza onik ikasiko-eta!» bota zion, eta halaxe hasi nintzen. Nik orduan ez nuen beste afiziorik. Lehen klasean esan zidan «hobe huan bate jakin ez ba huan!». Penaz hartu nuen esaldi hura. Harro sentitu nintzen gerora, Elgetak berari berdina esan ziola jakin nuenean.

Kontzejupetik. 2022ko azaroa

ION CELESTINO

Nolanahi ere, tresnaren zentralitatea oso indartsua da. Hain indartsua ze haur bat musika eskolara eramaten dutenean, haur hori ez baita doinu edo kantu edo dantzen ikastera joaten. Instrumentu baten ikastera baizik —honen gaineko idea interesgarri anitzendako, berri-
kus Joseba Tapiaren Larreko Eskolatik—. Eta badugu arazo bat —ez dut esan nahi arazo bakarra ez eta larriena ere, eta arazo bat ote den ere zeuk esan—. Baina jende multzo bati «euskal musika» esan eta asoziazio askean hitzak botatzen hasiz gero, aipatutakoak tresnen izenak dira. Eta hara, top 2an, baietz soinu txikia!

Berria. 2022/12/4

ROBERTO ETXEBARRIA

Plazetara hasi zinen Eukene Arrolarekin. Zelan gogoratzen duzu?

Rufinoren iloba zen. Gure aurretik ibili zen Imanol Arrola; oker ez banago, Rufinoren lehengusu baten iloba zen. Ni hasi nintzenean, Imanol bere kontura hasi zen, eta ni Eukene-gaz. Pozik joaten ginen: 13 urtegaz baserritik urtetako aukera zen, beste gauza batzuk ezagutzekoa. Eukene-gaz joateak ere asko laguntzen zidan. Rufinogaz genuen belaunaldi diferentzia itzela zen. Orduan 70 bat urte edukiko zituen. Alde hori txikitzen edo zubi lana egiten asko lagundu zigun Kepa Arrizabalagak. Orduan Rufinoren pandero jolea zen. 35-40 izango zituen Kepak orduan. Ez ginen denbora osoan jotzen aritzen. Rufinok esaten zigun: «Pieza hau jotzen ere lagundu egidazue»; baina, gero, denbora librea ere izaten genuen, eta olgetan ere asko egiten genuen geure artean.

Berria. 2022/12/12

altzaporrU

2022

URTEKARIA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

